OXFAM INTERMONEN INFORMAZIO DOKUMENTUA
2024 IRAILA

DOCUMENTO INFORMATIVO DE OXFAM INTERMÓN
SEPTIEMBRE 2024

# ZAINTZARI BURUZKO PERTZEPZIOAK BIZKAIAN

# PERCEPCIONES SOBRE EL CUIDADO EN BIZKAIA

**ZAINTZA EDO ZAINKETAK GIZARTEAN ORO HAR OSO PRESENTE DAUDEN TERMINOAK DIRA, MUGIMENDU FEMINISTATIK HASI ETA HAUTESKUNDE-PROGRAMETARAINO ZAINKETEI BURUZ HITZ EGITEN DUTE; BAINA ZER ULERTZEN DUTE HERRITARREK ZAINTZAZ?**

Bizkaiko biztanleek zaintza hainbat jarduera barne hartzen dituen kontzeptu irekitzat hartzen dute; gizartearen funtzionamendurako lan produktiboa bezain beharrezkoa edo beharrezkoagoa dela uste dute.

Familiek eusten diote zaintzari, eta familien barruan, oraindik ere emakumeen esku dago, diskurtsoak bilakaera izan badu ere. Ahalegin fisiko eta emozionalaren inpaktua jasaten dute, eta haien ekonomiei ere eragiten diete.

Beharrezkotzat jotzen da paradigma aldatzea. Eredu berri bat, non genero-berdintasuna lortuko den eta administrazio publikoek eta enpresek zaintza-lana hobeto banatzen lagunduko duten. Azken finean, zaintzaren eredu gizatiarrago baterantz jotzea.

**EL CUIDADO O LOS CUIDADOS SON TÉRMINOS YA MUY PRESENTES EN LA SOCIEDAD EN GENERAL, DESDE EL MOVIMIENTO FEMINISTA HASTA LOS PROGRAMAS ELECTORALES HABLAN DE CUIDADOS; PERO ¿QUÉ ENTIENDE LA CIUDADANÍA POR CUIDADOS?**

La población de Bizkaia percibe el cuidado como un concepto abierto que abarca múltiples actividades; como algo tanto o más imprescindible para el funcionamiento de la sociedad que el trabajo productivo.
Las familias sostienen el cuidado y dentro de las familias, este sigue recayendo en las mujeres, aunque el discurso haya evolucionado. Sufren el impacto del esfuerzo físico y emocional y se afectan también sus economías.

Un cambio de paradigma se reclama como necesario. Un nuevo modelo en el que se logre la igualdad de género y en el que las administraciones públicas y las empresas contribuyan a una mejor distribución del trabajo de cuidado. En definitiva, caminar hacia un modelo más humano del cuidado.

OXFAM
Intermón

# SARRERA

Oxfam Intermon 2017tik ari da Bizkaiko zainketen eremua aztertzen. Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako hiru proiekturen bidez, etxeko langileen eta zaintzaileen erakundeekin egiten den lanetik hasi eta Bizkaiko biztanleriaren zainketari buruzko azterlan honetara arteko bidea egin da.

Bizkaiko eta Gipuzkoako etxeetan lan egiten duten emakume nikaraguarren bizi eta lan baldintzak aztertu ondoren -*Bizitzaren Zaintza* txostenean [1]eta Samaldan komikian[2] jasota daudenak-, 2018ko azaroan, Oxfam Intermonek bat egin zuen Mundubatekin, Ellacuria Fundazioarekin eta Zentzuz-ekin, eta Estatu osoko 25 erakundetako 180 emakume inguru, Nikaragua, El Salvador eta Hondurasekoekin batera, Bilbon bildu zituzten Etxeko eta Zaintzako Langileen I. Nazioarteko Jardunaldiak antolatzeko.

Bigarren etapa batean, etxean zaintza intentsiboko egoerak artatzen dituzten Bizkaiko familien egoera aztertu zen. Zaintza Etxean txostenak[3] zainketak etengabe emateak eragiten duen inpaktu emozional handia erakusten zuen. Azterketak adierazten zuen garrantzitsua zela zaintzak kanporatzeko eta indibidualizatzeko katea haustea, genero-, klase- eta jatorri-desberdintasunak errepikatzen dituelako gizartean.

Ondoren, Zaintza Antolakuntza Berregin mintegiak (Bilbo, 2021eko abendua[4]) nabarmendu zuen beharrezkoa dela zainketen ulermena berrikustea, gizonak sisteman nola txertatu, zer harreman ezarri komunitatearen eta administrazio publikoen artean zaintzak bermatzeko, eta zer politika publiko ezarri behar diren zainketei arreta emateko eta bizitzaren jasangarritasuna bermatzeko.

Zaintzaren indibidualizazioa hausteko beharra azpimarratu zen, eta, giza begirada batetik abiatuta, arreta duina eta kalitatezkoa zainduko duen zaintza-sistema publiko bat ezartzeko beharra, eta, beren baliabide material eta emozionaletatik, familiak erantzukizun esklusibotik askatuko dituena. Horrek pentsamoldea aldatzea dakar, zainketak batez ere

# INTRODUCCIÓN

Oxfam Intermón trabaja desde 2017 explorando el ámbito de los cuidados en Bizkaia. A través de tres proyectos financiados por la Diputación Foral de Bizkaia se ha ido trazando un camino que va desde el trabajo con organizaciones de trabajadoras de hogar y cuidados hasta este estudio sobre percepciones del cuidado de la población de Bizkaia.

Tras explorar las condiciones de vida y trabajo de las mujeres nicaragüenses empleadas en hogares de Bizkaia y Gipuzkoa recogidas en el Informe *Al Cuidado de la Vida*[1] y el cómic En Bandada[2], en noviembre de 2018, Oxfam Intermón se unía a Mundubat, Fundación Ellacuría y Zentzuz para organizar las I Jornadas Internacionales de Trabajadoras de Hogar y Cuidado que reunieron en Bilbao a unas 180 mujeres de 25 organizaciones de todo el Estado además de Nicaragua, El Salvador y Honduras.

En una segunda etapa se analizó la situación de las familias de Bizkaia que atienden situaciones de cuidado intensivo en el hogar. El informe El Cuidado en Casa[3] mostraba el fuerte impacto emocional que ocasiona la provisión constante de cuidados. El análisis señalaba la trascendencia de romper con la cadena de la externalización e individualización de los cuidados, porque reproduce las desigualdades de género, clase y origen en la sociedad.

Posteriormente, el seminario Repensar la Estructura Social de los Cuidados, (Bilbao, diciembre de 2021[4]) destacó la necesidad de revisar la comprensión de los cuidados, cómo incorporar a los hombres al sistema, qué relación establecer entre la comunidad y las administraciones públicas para garantizar cuidados, y qué políticas públicas deben implementarse para atender a los cuidados y garantizar la sostenibilidad de la vida.

Se insistió en la necesidad de romper con la individualización de los cuidados, e implementar un sistema público de cuidados desde una mirada humana que vele por una atención digna y de calidad, y que libere a las familias de la responsabilidad exclusiva

familia-ingurunean egin behar direla eta emakumeak horiek gauzatzeko gaitasun handiagoa dutela pentsatzeari dagokionez.

Beraz, hirugarren etapa honetan, "Zainketen antolaketa Bizkaian, pertsona guztien artean eta guztiontzako" proiektuaren esparruan, Bizkaiko biztanleriaren zaintzari buruzko pertzepzioak aztertzeko beharra planteatzen dugu, pertzepzio horren araberako pertsona-talde desberdinak eta pertzepzio horien oinarrian dauden narratiba nagusiak identifikatuz.

Jakin badakigu[5] narratibek pertsonen sinesmen eta portaeretan eragiteko eta praktika instituzionalei forma emateko ahalmena dutela. Gure esparru kultural, sozial eta politikoetan ageri dira, eta, askotan, zeregin garrantzitsua dute desberdintasunak finkatzeari dagokionez. Narratiba horiek pertzepzio desitxuratuak elikatu ditzakete, eta, aldi berean, ikuspuntu ekonomikotik zein sozialetik beharrezkoak diren aldaketa politikoak eragozten dituzte.

Informazio-dokumentu honek Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleriaren zaintzari buruzko pertzepzioak ulertzeko lehen hurbilketa izan nahi du, terminoa gure inguruneko eztabaida politiko eta sozialean agertu den garai honetan.

desde sus recursos materiales y emocionales. Esto implica un cambio de mentalidad con relación a la idea de que los cuidados deben realizarse principalmente en el entorno familiar y de que las mujeres son más capaces de llevarlos a cabo.

Así pues, en esta tercera etapa, en el marco del proyecto "La organización de los cuidados en Bizkaia, entre todas y para todas las personas", nos planteamos la necesidad de indagar en torno a las percepciones sobre el cuidado de la población de Bizkaia, identificando distintos grupos de personas en función de esta percepción y las principales narrativas en las que se sustentan esas percepciones.

Sabemos[5] que las narrativas tienen el potencial de influir en las creencias y comportamientos de las personas y dar forma a las prácticas institucionales. Permean nuestras esferas culturales, sociales y políticas y, a menudo, desempeñan un papel importante en la consolidación de las desigualdades. Estas narrativas pueden alimentar percepciones distorsionadas, que a su vez impiden cambios políticos que son necesarios tanto desde el punto de vista económico, como social.

Este documento informativo pretende ser un primer acercamiento a la comprensión de las percepciones sobre el cuidado de la población del Territorio Histórico de Bizkaia en un tiempo en el que el término ha asomado al debate político y social en nuestro entorno.

# ZAINTZA, KONTZEPTU IREKIA

*«Ez da adin kontua bakarrik. Istripu baten ondorioz, norbaitek gauzak egin behar dizkizu; ezin duzu jan eta ezin zara jantzi»*

Zaintza kontzeptu zabal eta konplexu gisa antzematen da, eta haren mugak eta irismena ez dira berdinak pertsona guztientzat. Hainbat alderdi biltzen ditu, oinarrizkoenetik hasi eta premia handi eta globaletara. Jardueretan zehazten saiatzean ere, desberdintasunak daude pertsona batzuen eta besteen ustez zaintza denaren edo ez denaren artean.

Gaur egungo zahartze demografikoaren testuinguruan, zaintzari buruz hitz egiteak, ezinbestean, gaixotasunen bat duten adinekoei eta dibertsitate funtzionala duten pertsonei zuzeneko arreta emateari buruz -haien arreta berez problematikoa izanik- hitz egitera eramaten ditu pertsonak; izan ere,[6] . adostasuna dago hori zaintza dela. Baina adostasun horretatik haratago, ematen zaion balioaren eta norberaren bizi-esperientziaren araberako zalantzak sortzen hasi dira.

**Bizkaiko biztanleriak, oro har, zainketen ikuskera zabala erakusten du.** Ikusten dugunez, gehien-gehienek (hamarretik bederatzi inguruk) uste dute zaintzaren kontzeptua honako jarduera hauek osatzen dutela: adineko pertsona bati medikuaren hitzorduak hartzea, lagun gaixo bat artatzea, adinekoentzako banku-kudeaketak egitea edo lehen haurtzaroko premiei erantzutea. Baina etxea garbitzea eta janaria prestatzea ere zaintza-lantzat hartzen dute (% 84,6).

Beste jarduera batzuk ere, hala nola auzokideei erosketak egitea, beste pertsona batzuen seme-alabei eskolaz kanpoko jardueretan laguntzea edo maskotari arreta ematea, zaintzak dira gehienentzat, baina nabarmen txikiagoak. Kasu horietan zalantza gehiago agertzen dira, eta zalantzak gehiago izango dira zenbat eta mugatuagoa egon zainketen ikuspegia jarduera batzuetara eta txikiagoa izan ematen zaien balioa.

# EL CUIDADO, UN CONCEPTO ABIERTO

*«No es solo cuestión de edad. Un accidente te lleva a necesitar que alguien te haga las cosas, no puedes ni comer ni vestirte»*

El cuidado como concepto se percibe amplio y complejo, sus límites y alcance no es el mismo para todas las personas. Incluye diferentes facetas que van desde lo más básico, a necesidades más elevadas y globales. Incluso al tratar de concretarlo en actividades, hay disparidades entre lo que unas y otras personas consideran que es o no cuidado.

En el actual contexto de envejecimiento demográfico, hablar de cuidado, inevitablemente, conduce a las personas a hablar de la atención directa a las personas mayores con alguna enfermedad y a las personas con diversidad funcional cuya atención constituye una problemática en sí misma; de hecho[6]. Sobre que eso es cuidado existe consenso. Pero más allá de este consenso empiezan a generarse dudas en función del valor que se le otorga y de la propia experiencia vital.

**La población de Bizkaia, muestra, en general una concepción amplia de los cuidados.** Vemos cómo la gran mayoría (en torno a nueve de cada diez personas) considera que integran su concepto de cuidado actividades tales como sacar las citas médicas a una persona mayor, atender a una amiga o amigo enfermo, realizar gestiones bancarias a personas mayores o atender las necesidades en la primera infancia. Pero también consideran trabajos de cuidado limpiar la casa y cocinar (el 84,6%).

Otras actividades como hacer la compra a personas vecinas, acompañar a los hijos e hijas de otras personas a actividades extraescolares o atender a la mascota también son cuidado para la mayoría, aunque de manera significativamente menor. En estos casos se manifiestan más dudas y, tanto más se duda, cuanto más limitada está la perspectiva de los cuidados al considerar tan solo unas labores concretas y menor es el valor que se les otorga.

## GRAFIKOA 1. EKINTZA HAUEK ZAINTZATZAT HARTZEN DUTEN PERTSONEN EHUNEKOA
## GRÁFICO 1. PORCENTAJE DE PERSONAS QUE CONSIDERAN CUIDADOS CADA UNA DE LAS SIGUIENTES ACTIVIDADES




*Iturria: berezkoa, Bizkaian egindako inkestatik aterata. Fuente: elaboración propia a partir de los datos de la encuesta en Bikaia.*

Zalantzarik agertzen ez duena da, **zaintzak ezinbestekoak direla gizartearen funtzionamendurako.** Funtsezkoak izateaz gain, ekoizpen-jarduera bezain lehentasunezkoak dira, gutxienez. Biztanleriaren % 85,8 ados dago baieztapen horrekin, eta % 60 baino gehiago oso ados dago.

**Bizkaiko biztanleriaren ia erdiak (% 47,5) zabaltasun eta ikuspegi horrekin hautematen ditu zainketak, eta** jarduera horiek guztiak zainketatzat hartzen ditu. Populazio-talde horretan emakume gehiago daude gizonak baino, 45 eta 54 urte bitarteko pertsonak, jarduneko langileak, hiri-eremukoak, goi-mailakoak eta goi-mailako ikasketak dituztenak. Zainketen profesionalizazioaren aldeko pertsonak dira, erakundeen babesaren aldekoak, kontziliaziorako enpresen babesaren aldekoak eta genero-berdintasunaren aldekoak. Zainketak emakumeekin lotzen dituzten estereotipoak arbuiatzen dituzte, zainketei beste produkzio-jarduera batzuei bezainbesteko garrantzia ematen diete, eta lan hori egiten dutenentzako lan-baldintza bidezkoak defendatzen dituzte, baita senideak direnean ere, ekarpen handia egiten dutelako.

Lo que no ofrece duda es que **los cuidados son imprescindibles para el funcionamiento de la sociedad**. No solo son esenciales sino que son, al menos, tan prioritarios como la actividad productiva. El 85,8% de la población se muestra de acuerdo con esta afirmación, siendo más del 60% quienes están muy de acuerdo.

**Casi la mitad de la población de Bizkaia (47,5%) percibe los cuidados con esa amplitud y consideración,** reconociendo todas esas actividades como cuidados. En este grupo poblacional hay más mujeres que hombres, personas de entre 45 y 54 años, trabajadoras en activo, de ámbito urbano, de clase alta y con estudios superiores. Son personas favorables a la profesionalización de los cuidados, abogan por el apoyo institucional, y por el apoyo de las empresas para la conciliación, así como a la igualdad de género. Rechazan los estereotipos que relacionan los cuidados con las mujeres, dan tanta importancia a los cuidados como a otras actividades productivas y defienden condiciones laborales justas para quienes realizan este trabajo, incluso tratándose de familiares, por su importante contribución.

Bizkaiko biztanleriaren beste erdia bi taldetan banatzen da. Horietako lehena (% 31,2) gehiengoarengana nahiko hurbiltzen da pertzepzioan, baina zalantza gehiago agertzen ditu jarduera motaren arabera. Nabarmen jaisten da zaintza-lanen artean etxeko lanak barne hartzen dituzten pertsonen ehunekoa. Talde horretan gizon gehiago daude, 35-44 urte bitartekoak, eta langabetu gehiago daude, erdi-mailakoak eta bigarren mailako ikasketak dituztenak. Segmentu horrek modu epelean baloratzen du zaintza jarduera profesional gisa eta jarduera hori egiten duten pertsonak, baina hurbilago dago etxean egitea eta familiari diru-sarrerarik ematen ez dionak bere gain hartzea pentsatzetik, gizon zein emakume izan. Ehuneko txikiago batek (% 21,3) zaintzaren arazoaren aurrean axolagabekeria handiena eta pertzepzio mugatuagoa duten pertsonak biltzen ditu. Nabarmen txikiagoak dira zaintza gisa planteatutako jarduera guztien ehunekoak, eta zaintza komunitarioaren kasuan (auzoan edo eskolan) 10etik batek bakarrik barne hartzen ditu zaintza-lanen artean. Talde horretan argi eta garbi nabarmentzen dira gizonak, erretiratuak eta pentsiodunak, bai eta 18 eta 34 urte bitarteko gazteak ere. Udalerri txikiagokoak dira eta ikasketa-maila txikiagoa dute. Talde horretako pertsonek ez dute kontuan hartzen zaintzaren balioa, eta, ondorioz, ez dute kontziliazioaren, ez laguntzen, ez zainketak ikusaraztearen beharrik antzematen. Ez dute zaintza lantzat hartzen, eta lan hori egiten duten pertsonak gutxiesten dituzte, ez dutelako uste ordaindutako beste produkzio-lan batzuekin alderatu daitekeenik.

La otra mitad de la población de Bizkaia se subdivide en dos grupos. El primero de ellos (31,2%) se acerca bastante al mayoritario en su percepción, pero manifiesta más dudas en función del tipo de actividad. Baja significativamente el porcentaje de personas que incluye las tareas de hogar entre los trabajos de cuidados. En este grupo hay más hombres, de 35 a 44 años, incluye a más personas desempleadas, de clase media, y con estudios secundarios. Este segmento valora de manera tibia el cuidado como actividad profesional y a las personas que lo llevan a cabo, pero está más cercano a considerar que se realice en casa y que lo asuma quien no aporte ingresos a la familia, ya sea hombre o mujer. Un porcentaje más pequeño (21,3%) agrupa a las personas con mayor despreocupación ante la problemática del cuidado y una percepción más acotada. Son significadamente más bajos los porcentajes en relación a todas las actividades planteadas como cuidado y en el caso del cuidado comunitario (en el vecindario o en la escuela) solo una de cada 10 las incluye entre las tareas de cuidado. En este grupo los hombres destacan claramente, así como las personas más jóvenes de entre 18 y 34 años, las jubiladas y pensionistas. Son de poblaciones más pequeñas y con niveles de estudios inferiores. Las personas de este grupo ignoran el valor de los cuidados y, en consecuencia, no perciben la necesidad de conciliación, ni de ayudas, ni de visibilización de los cuidados. No consideran el cuidado como un trabajo y minusvaloran a las personas que lo llevan a cabo porque no lo consideran comparable a otros trabajos productivos remunerados.

## GRAFIKOA 2. ZAINTZAREN BALIOA POPULAZIOAREN EHUNEKOAREN ARABERA
## GRÁFICO 2. VALORACIÓN Y CONSIDERACIÓN DE LOS CUIDADOS SEGÚN PORCENTAJE DE POBLACIÓN




*Iturria: berezkoa, Bizkaian egindako inkestatik aterata. Fuente: elaboración propia a partir de los datos de la encuesta en Bikaia.*

## GRAFIKOA 3. HONAKOEN ALDEKO AGERTZEN DIRENEN EHUNEKOA ZAINTZARI BALIO HANDIA EMATEN DIOTENEN ARTEAN
## GRÁFICO 3. PORCENTAJE DE PERSONAS CON ALTA SENSIBILIDAD ANTE LOS CUIDADOS QUE ESTÁN DE ACUERDO CON LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES




*Iturria: berezkoa, Bizkaian egindako inkestatik aterata. Fuente: elaboración propia a partir de los datos de la encuesta en Bikaia.*

# ZAINTZAZ ZAINTZEA

*«Izan ere, bizitza geldiarazten dizu, akidura bat da, ezin duzu irakurri ez dakizulako nola konpondu hau, eta pentsatu eta pentsatu ari zara... horrek ez luke zure buruan egon beharko. Sare bat egon beharko litzateke, hori gertatzen denean konpontzen, erabakiak hartzen lagunduko dizun prozedura bat»*

Zaintzak eragin handia du zaintza hori beren kabuz egin behar duten familiengan, batez ere mendetasun-maila handia denean, zenbait kasutan higadura emozional eta fisiko handia eragiten duelako. **Pertsona guztiek ikusten dute oso lan higagarria dela eta izaera afektibo sendoa duela,** sendotasun mentala, oreka eta erresilientzia behar dituena, arreta eskaera handiari eta zainduak askotan duen narriadura egoerari aurre egiteko. Egoera oso gogorrak bizi dira, eta zaintzailea ez dago egoera horietarako prestatuta, prozesu osoa estresarekin, larritasunarekin eta depresioarekin bizi baitezakete.

Horri gehitu behar zaizkio ziurgabetasuna, zaintza-egoeraren aurreikuspen falta eta iraupena, etorkizun hurbilaren programazioa eragozten edo zailtzen duena. Garrantzitsua da, halaber, egoera horietan sortzen den tentsio familiarra, pitzadurak, sumindura eta narriadura eragin baititzake familia barruko harremanetan. Kide batzuk besteek baino inplikazio handiagoa izatearen ondoriozkok desorekak eta aurretiko egoera gogorrek detonatzaile gisa funtzionatzen dute.

Zaintzak eskatzen duen ahalegina oraindik ere, batez ere emakumeengan, nagusitzen den motibazio moral/sozialak soilik saritzen du: zaintza behar duenarekiko erantzukizunak.

Hala ere, belaunaldi aldaketa sumatzen da zaintzeko betebeharrari dagokionez. Pertsonen % 50ek adierazi zuten ez zela seme-alaben betebeharra izan beharko gurasoak zaintzea. Positibotzat jotzen da gaur egun

# CUIDARSE DEL CUIDADO

*«Es que te paraliza la vida, es un agotamiento, no puedes leer porque no sabes cómo resolver esto, y estás pensando... eso no tendría que estar en tu cabeza. Tendría que haber una red, un procedimiento que cuando eso ocurre te ayuden a resolverlo, a tomar decisiones»*

El cuidado tiene un alto impacto en las familias que se ven abocadas a afrontar este cuidado por sí mismas, especialmente cuando el nivel de dependencia es alto, porque conlleva un gran desgaste emocional y físico en algunos casos. **Todas las personas lo perciben como una labor muy desgastante y con un fuerte carácter afectivo,** que requiere fortaleza mental, equilibrio y resiliencia para hacer frente a la alta demanda de atención y a la situación de deterioro que la persona cuidada muchas veces presenta. Se viven circunstancias muy duras para las que no está preparada la persona cuidadora, que pueden conducir a vivir todo el proceso con estrés, angustia y depresión.

A eso se suma la incertidumbre, la falta de previsión y duración temporal de la situación de cuidado que imposibilita o dificulta la programación del futuro inmediato. No menos importante es la tensión familiar que surge en estas situaciones y que puede provocar fisuras, crispación y deterioro en las relaciones intrafamiliares. El desequilibrio por la mayor implicación de unos miembros frente a otros, y situaciones previas enconadas, funcionan como detonantes.

El esfuerzo que requiere el cuidado sólo se ve recompensado por una motivación de carácter moral/social que aún prevalece, especialmente en las mujeres: la responsabilidad respecto a quien necesita el cuidado.

norberaren zaintzara bideratutako pentsamoldea egotea eta garapenerako espazio pertsonala izatea. Aldaketa hori adierazten da, batetik, pertsona gazteagoek nahitaez ez zaintzeko duten eskubideari dagokionez, eta, bestetik, adin ertaineko pertsonek seme-alabentzat oztopo ez bihurtzeko nahiari dagokionez.

Sin embargo, se percibe un cambio generacional respecto al deber de cuidar. El 50% de las personas señalaron que no debería ser obligación de las hijas e hijos cuidar de sus progenitores. Se valora positivamente que hoy día haya una mentalidad más dirigida al propio cuidado y se disponga de espacio personal para el desarrollo. Este cambio se expresa tanto en términos del derecho a no cuidar por obligación en personas más jóvenes, como en el deseo de no convertirse en un lastre para los hijos e hijas por parte de las personas de mediana edad.

# ERANTZUKIDETASUNA, BIDE MOTELA

*«Lehen ziurtzat jotzen genuen emakumeak zaintzaren % 100 bere gain hartzen zuela eta seme-alabez eta etxeaz arduratzen zela. Eta gaixorik bazeuden, emakumeak hartzen zuen bere gain, eta ez zen inpaktu hori ikusten, zainduta zegoen»*

**Familia, eta familiaren barruan, emakumeak dira, oraindik ere, zaintza-lana gehienbat beren gain hartzen dutenak.** Pertsona gehienek (% 64,9) uste dute zaintza-sistema emakumeek sostengatzen dutela, ordaindua izan edo ez, eta % 9 baino ez dago ados.

Are gehiago, genero-desberdintasuna ez da etxeetara mugatzen. Zaintza-lanak, oro har, emakumeek egiten dituzte, bai familian, bai lanbidean. Zainketen sektorea feminizatuta, azpibaloratuta eta gutxi aitortuta dagoela uste da oraindik ere, lanaldi luzeekin, kontratu prekarioekin eta soldata eskasekin, eta horrek desabantaila ekonomikoa eragiten duela beste sektore profesional batzuen aldean.

Hori horrela izanik, ikuspegi aldaketa bat sumatzen da, etxeko zaintzaz arduratzen direnak emakumeak izan behar direla pentsatzeari dagokionez. Hamar pertsonatik zortzik adierazi zuten zaintzak gizon edo emakume batek eman ditzakeela, eta zaintza ez dela jaiotzatiko zerbait, ikas daitekeen zerbait baizik. Hamarretik zazpik onartzen dute emakumeak ez daudela prest etxean geratzeko zaintza beren gain hartuta, beste garai batean bezala.

Hala ere, esanguratsua da emakumeek zaintzarako gaitasun handiagoa dutela dioten usteak dituzten pertsonen ehunekoa (% 31,9, eta % 34,2, aldiz, ez daude ados).

Hala ere, gero eta gehiago, denbora izatea da zaintzak egin ahal izateko faktore nagusia, eta, beraz, lan-

# LA CORRESPONSABILIDAD UN CAMINO LENTO

*«Antes dábamos por hecho que la mujer asumía el 100% de los cuidados y se dedicaba a los hijos y a la casa. Y si estaban enfermos lo asumía la mujer, y no se veía ese impacto, ya estaba cuidado»*

**La familia y dentro de la familia, las mujeres, siguen siendo quienes asumen mayoritariamente el trabajo de cuidados**. Esta realidad es percibida por una mayoría de personas (64,9%) que afirman que el sistema de cuidado es sostenido por las mujeres ya sea remunerado o no, frente a apenas un 9% que no está de acuerdo.

Es más, la desigualdad de género no se circunscribe a los hogares. El cuidado es desempeñado corrientemente por las mujeres tanto en el ámbito familiar, como en el profesional. Persiste la percepción de que el sector de los cuidados está feminizado, subvalorado y poco reconocido, con extensas jornadas laborales, contratos precarios y salarios insuficientes lo que contribuye a una situación de desventaja económica frente a otros sectores profesionales.

Siendo esto así, se percibe un cambio de orientación respecto a considerar que deban ser las mujeres quienes se ocupen de los cuidados en el hogar. Ocho de cada diez personas afirmaron que los cuidados puede atenderlos indistintamente un hombre o una mujer y que el cuidado no es algo innato, sino algo que se puede aprender. Siete de cada diez asumen que las mujeres no están dispuestas a quedarse en el hogar asumiendo ellas solas el cuidado como en otro tiempo.

Sin embargo, es significativo el porcentaje de personas que sigue sosteniendo creencias respecto a que las mujeres tienen mayor capacidad para el cuidado (31,9% frente a un 34,2% en desacuerdo).

egoera eta kontziliazio-neurriak – eta ez hainbeste sexua/generoa – hasi dira markatzen nork hartzen dituen bere gain zainketak familiaren barruan, nahiz eta, nolanahi ere, zama guztia ez duen hartu behar diru-sarrerarik ez duen pertsona horrek, hobeto banatu behar da. Are gehiago, % 61,9 pertsona ez dago ados etxea ekonomikoki sostengatzea zaintza-lanetan ez inplikatzeko arrazoi izatearekin.

**Zaintza hobeto banatzeko funtsezko elementuetako bat gehiengoaren babesa duten kontziliazio-neurriak dira.** Neurri horietan, gizonak emakumeen modu berean inplikatu behar dira (% 84,8), izan ere, onartzen da emakume askok, beste aukerarik ez dagoenean, lanaldia laburtzen duela edo lana uzten duela zaintzeko (% 76,1).

Baina **kontziliazioa posible izan dadin, enpresen (% 79,4) eta administrazio publikoen (% 77,9**) babes handiagoa behar da; izan ere, baimenak luzatu eta adinekoen zaintza barne hartu beharko liratekeela uste da (% 70,2). Kontziliazioa sustatzeko enpresen partaidetza izatea ezinbestekotzat jotzen da langileen beraien ongizaterako, baina sumatzen da enpresa gutxik jartzen dutela praktikan.

No obstante, cada vez más, la disponibilidad de tiempo es el factor principal para poder realizar cuidados, por lo que la situación laboral y las medidas de conciliación -y no tanto el sexo/género- empiezan a marcar quién asume los cuidados al interior de la familia, aunque, de todos modos, no debería recaer toda la carga en esa persona que no aporte ingresos, sino distribuirse mejor. Es más, el 61,9% de las personas no están de acuerdo con que sustentar económicamente el hogar sea razón para no implicarse en las tareas del cuidado.

**Uno de los elementos clave para una mejor distribución del cuidado son las medidas de conciliación que cuentan con apoyo muy mayoritario**; medidas en las que los hombres deben implicarse de igual manera que las mujeres (84,8%), dado que se reconoce que muchas mujeres recortan su jornada o abandonan su empleo para cuidar cuando no hay otras opciones (76,1%).

Pero **para que la conciliación sea posible hace falta un mayor apoyo de las empresas (79,4%) y de las administraciones públicas (77,9%**); de hecho, se considera que los permisos deberían ampliarse e incluir el cuidado de las personas mayores (70,2%). Contar con la participación de las empresas para fomentar la conciliación se considera imprescindible para el bienestar de las propias personas trabajadoras, pero se percibe que son pocas las empresas que realmente la ponen en práctica.

# ZAINTZEA, BATEZ ERE, DIRU KONTUA DA

# CUIDAR SOBRE TODO ES UNA CUESTIÓN DE DINERO

*«Arazo ekonomikoa da, besterik ez dago. Gurasoak zaintzen badituzu, lan egiteari uzten diozu, dirua sartzeari uzten diozu eta ezin dituzu beste gauza batzuk ordaindu. Dirua baduzu, denboraldi batez lan egiteari utz diezaiokezu, baina, bestela...»*

*«Es un problema económico, es que no hay más. Si tú cuidas a tus padres dejas de trabajar, dejas de ingresar y no puedes pagar otras cosas, si tienes dinero bien, puedes dejar de trabajar una temporada, pero si no...»*

Bizkaian, biztanleriaren % 33,7 mendetasun-egoeran dauden 65 urteko edo gehiagoko pertsonak dituzten etxeetan bizi da, % 25,9 gaixorik dauden pertsonak dituzten etxeetan bizi da, eta % 23,2 desgaitasunen bat duten pertsonekin bizi da.

En Bizkaia, un 33,7% de la población vive en hogares con personas de 65 o más años en situación de dependencia, un 25,9% vive en hogares con personas enfermas y un 23,2% con personas con alguna discapacidad.

**GRAFIKOA 4. ETXEAN HONAKO EGOERA HAUEI AURRE EMAN BEHAR DIOTENEN EHUNEKOA**
**GRÁFICO 4. PORCENTAJE DE PERSONAS QUE CONVIVE EN SU HOGAR CON CADA UNA DE LAS SIGUIENTES SITUACIONES**




*Iturria: berezkoa, Bizkaian egindako inkestatik aterata. Fuente: elaboración propia a partir de los datos de la encuesta en Bikaia.*

